



LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL ZERBITZUAK EGINDAKO TXOSTENA. BILBOKO (MERCABILBAO) BANANAREN HANDIZKAKO KOMERTZIALIZAZIOAREN INGURUAN BILBOKO UDALEKO UDAL BATZORDE IRAUNKORRAK 1979KO URRIAREN 31N HARTUTAKO ERABAKIA DA TXOSTEN HONEN GAIA.

Esp.: 004/2007

I. AURREKARIAK

1. Txosten hau argitaratu da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren funtzioak ezartzeari buruzko apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren 13. artikuluari jarraiki, han ezarria baitago *“Lehiaren Defentsarako Euskal Autonomia Erkidegoko Zerbitzuari dagozkiola Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 31. artikuluan ageri diren funtzioak”*. Horri dagokionez, aipatutako 16/1989 Legearen 31. artikulua, k) atalean, ezarri egiten du Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren, eta beraz, baita Lehiaren Euskal Zerbitzuaren funtzioak direla *“Lehiaren defentsaren gaiei buruzko txostenak eta/edo gomendioak zuzentzea edozein ministerio saili, autonomia erkidegori, tokiko korporaziori, merkataritza ganberari eta enpresa-, sindikatu edo kontsumitzaile- nahiz erabiltzaile-elkarteri.”*
2. 2007ko martxoaren 9ko dataz, Aitor Argote Ibañez jaunak aurkeztutako



idazkia sartu da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan. Agote jaunak A48047567 IFZ duen (aurrerantzean MERCABILBAO) enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz aurkeztutako idazkiak eskatzen du txostena eta/edo gomendioa argitaratu dadila, bananaren handizkako komertzializaziorako sortutako pabilioian eta ez beste inon zeregin hori egiteari buruz Bilboko Udaleko Udal Batzorde Iraunkorrak 1979ko urriaren 31n hartutako erabakiaren inguruan.

3. 1979ko urriaren 31ko Bilboko Udaleko Udal Batzorde Iraunkorraren Erabakiak, txosten honen helburu denak, ondokoa ezartzen du:

“Horniduren eta Merkatuen Batzordeak proposatuta eta Lege Aholkularitzaren nahiz Mercabilbao SAREN txostenak ikusita, Zerbitzuaren intereskotzat izendatzea adostu da unitate horretako banana pabilioia sortzea, hala nola bananen komertzializazioa ezin izango dela egin horretarako sortutako pabilioitik kanpo Mercabilbaoren barruan.”

II. LEGE-OHARPENAK

1. Hornidurarako merkatu zentralen jatorria (aurrerantzean HMZ) Handizkako Merkatuen Ordenazioari buruzko ekainaren 4ko 1560/1970 Dekretuan dago (BOE, 139. zk., ekainaren 11koa). Produktu galkorren eta nekazaritzako nahiz arrantzako produktuen hiri handietako hornitzaile handientzako zentro moduan sortu ziren, eta esklusibotasun-izaera zuten, handizkari orok merkatu horietan integratu beharra baitzeukan.



Aipatutako Dekretuak, 2.1 artikuluan, ezartzen zuen handizkako merkatuek euren jarduera lehia askeko erregimenean egiteko beharrezko zerbitzu eta instalazio komertzialak eduki beharko zituztela. Eragina jasango zuten eremuetako handizkari guztien jarduera zentralizatzearen ondorioz liskarrak saihesteko, 3.1 artikuluan ezartzen zen instalazioek merkataritza guztien sarrera posible egiteko ahalmen eta tamaina nahikoak izan beharko zituztela, horrela denak arazorik gabe joatea bermatzeko.

Txikizkako enpresak produktu galkorrez hornitzeko jarduera ekonomikoa eta oso desiragarria den lehia askea lotzeaz arduratu zen aipatutako Dekretua, orduan, 1970ean.

2. Elikadurarako Nekazaritza eta Abeltzaintzako nahiz Arrantzako Produktuak Komertzializatzeko Kanalei buruzko uztailaren 26ko 1882/1978 Errege Dekretuak (BOE, 191. zk., abuztuaren 11koa) aipatutako Dekretua indargabetu zuen. 1882/1978 Errege Dekretuak handizkarien jarduerak liberalizatu zituen, euren produktuak derrigorrez HMZetan bakarrik komertzializatzetik aske utzi zituen neurrian.

Dekretu hori indarrean jarri zenetik, bananen handizkako komertzializatzaileek (aurrerantzean banana-saltzaileak) eta fruten handizkako komertzializatzaileek (aurrerantzean fruta-saltzaileak) HMZen barruan nahiz kanpoan instalatzeko askatasuna daukate zenbait baldintza betez gero.

Dekretu hau materia berriro ordenatzeaz arduratzen da HMZen barruko barazkien, fruten eta arrainen komertzializazioan salbuespenak jarriz eta legez banaketa-kanal alternatibo eta zentral moduan definitzen dituenak motibazio jakin batzuekin erregulatuz. Era berean, *“azpiegitura fisikoa*



*hobetzearen eta merkatu zentralen funtzionamendua erregulatzen duten arauak eguneratzearen komenigarritasuna planteatzen du, produktu galkorren komertzializazioaren lehia-maila handitzeko asmoz*¹. Gainera, dio. *“beharrezkoa da, halaber, komertzializazio zuzenerako oztopoak kentzea, ikuskaritza- eta zaintza-arloetako araudiarekin lotutakoak, beharrezko osasun-bermeen barruan”*².

HMZen mekanismo alternatibo hau erabiltzen dute euren komertzializazio- eta banaketa-zentralak dauzkaten nazioarteko sare handiek eta azalera handiek; horiek fruta- eta barazki-hornidura zentral horietan zentralizatzen dute.

3. MERCABILBAO enpresa mistoa da, Bilboko Udalak 1971.ean sortua Bilbo Handiko Handizkako Merkatuaren zerbitzua kudeatzeko. Honela banatzen da partaidetza³: Bilboko Udalak akzio guztien %59,85 dauka; Mercados Centrales de Abastecimiento SA (MERCASA) enpresak %38,86; Barakaldoko Udalak %0,55; Santurtziko Udalak %0,28; Bilboko Merkataritza Ganberak %0,26; Arrain Handizkarien Elkarteak %0,11; Fruten eta Barazkien Handizkarien Elkarteak %0,06 eta Pienso del Norte SA merkataritza-enpresak %0,06.

Zehazki, MERCABILBAO *“Artunduagako landetan, Basauri udalerrriaren barruan eta Bilbo-Behobia autopistaren ondoan”* eraikita, horniduraren hirigintza- eta osasun-alderdiak konpondu nahi ziren, baina baita bestelako alderdi batzuk ere, hala nola: *“a) merkatuaren argitasunik eza, sakabanatuta egotea oztopoa baitzen prezioak eta kopuruak alderatzeko, eta prezioak osatzeko prozesua zailagoa egiten zuen; b) errentagarritasun txikia*

¹ Zioen adierazpena

² Zioen adierazpena

³ MERCABILBAOko Gerentziak emandako informazioa



merkantziaren gehiegizko desplazamenduen ondorioz, eta mekanizazio eza zama-lanetan; eta c) eskusibotasunerako edo monopoliorako joera, horrek eragin kaltegarria zeukan prezioetan, ez baitzegoen hornitzaile gehiagorentzat leku erabilgarririk”⁴.

4. MERCABILBAOren Zerbitzua Emateko Araudiak, Bilboko Udal Txit Gorenak 1991ko uztailaren 19an onartutakoak, 2. artikuluan ezartzen du: *“Arautzen diren zerbitzuak Handizkako Merkatu Zentralak dira, eta horien bidez, Bilbo Hiria eta bere eraginpeko eremuaren handizkako hornidura ziurtatu nahi da oinarrizko beharrezko elikagai galkorrei dagokienez, eta baita salmentan eskainitako kalitatea, prezioen fideltasuna eta hornitzaileen arteko lehia askea ere. Merkatuen zerbitzua, hasiera batean, Fruten eta Barazkien Merkatua eta Arrainen Merkatua modalitatean emango da.*

Artikulu horrekin bat dator 6. artikuluan ezartzen dena (artikulu horrek enpresa mistoa produktuen kudeaketa komertzialean sartzen du) eta baita 7. artikuluan ezartzen dena ere, 4. atalean, —*“Helburu nagusia betetzeko, enpresak neurriak hartu beharko ditu derrigorrez handizkako merkatuetan produktu-kopuru nahikoa sar dadin horniduraren lehia egokia bermatzeko”*—, eta 8. atalean, —*“Helburu nagusia betetzeko, enpresak derrigorrez lortu beharko du Handizkako merkatuen ustiapenak ahalik eta eragin txikiena izan dezala produktuen komertzializazio-kostuetan”*—.

5. MERCABILBAO sortzeko proiektuaren hasieratik planteatu zen bananetarako nabe bat beharrezkoa zela⁵, heltze-ganberek leku espezifikoak

⁴ <http://www.mercabilbao.es>

⁵ Auzitegi Gorenaren epaia, 1985eko abenduaren 11koa (Ar. 1986/651), Seigarren kontuan hartuzkoa.



behar zutela iruditzen baitzitzaien. Nabea bananak pilatzeko, heltzeko eta komertzializatzeko sortuko zen, izan ere, heltze-ganbera espezifiko bi izango zituen horretarako.

Bananetarako nabea 1978an eraiki eta gero, MERCABILBAOko Administrazio Kontseiluak hitzarmena egin zuen, eta haren ondorioz, banana-saltzaileen jarduera nabe berrira eramatera derrigortu zuen eta debekatu egin zuen beren-beregi hartarako sortutako instalazioetatik kanpo bananak saltzea. MERCABILBAOko Administrazio Kontseiluaren Hitzarmen horri errekurtsoa jarri zioten eta azkenik Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zuen, komertzializazioan murrizketak egiteko eskumena zeukan agintaritzak ez zuela agindu argudiatuz⁶.

Eskumendun agintaritzak aipatutako Hitzarmenaren edukia bere gain hartu zuen eta, hala, Bilboko Udalak komertzializazioaren murrizketak ezarri zituen, 1979ko urriaren 31n txosten honen helburu den Hitzarmena onartuz. Hori aplikatuz, banana-saltzaileen leku-aldatzea agindu zen, ordura arte fruta-saltzaileen ondoan baitzeuden, eta bananak nabetik kanpo komertzializatzeko debekua ezarri zen. Agindu eta debeku hori osatzeko, instalazioetatik kanpo bananak komertzializatzen saiatuko litzatekeen edozein handizkari zigortu egingo zuten.

6. Era berean, Bilboko Udalaren Hitzarmenaren aurka helegite judiziala aurkeztu zen eta Hitzarmena aztertu egin zen kudeatutako zerbitzu publikoaren legeko konfiguraziora nola egokitzen zen kontuan hartuta, gaia lehia askearen aldeko doktrinaren ikuspuntutik aztertu gabe, hau da, lehia horri Hitzarmenak egin ziezaiokeen murrizketa aztertu gabe.

⁶ Auzitegi Gorenaren epaia, 1982ko uztailaren 16koa (Ar. 1982/5432)



Jurisprudentziak erabaki egin zuen bananaren heltzea eta komertzializazioa banatzeko erabakia zenbait txosten teknikotan oinarrituta zegoela eta baita Gobernazio Ministerioaren 1971ko martxoaren 5eko Aginduetan nahiz 1971ko maiatzaren 6ko Gobernu Presidentziaren Aginduan (BOE, 111. zk., 1971ko maiatzaren 10ekoa) ere; agindu horiek MERCABILBAOren jarduera hastea agintzen zuten⁷.

Justiziak honako arrazoiketa teknikoan oinarrituta berretsi zuen Hitzarmena: bananak heltzeko sistemak edukitzearen beharria. Ondorioztatu zuten neurria justifikatuta zegoela eta guztien intereserako eta fruta guztien komertzializaziorik onenerako araudi onuragarriena sartzeko ezin hobea zela, handizkako merkatu-zerbitzuek dituzten administrazio, kudeaketako eta zaintza higieniko-sanitarioko betebeharrak egoki betetzeko.

Alabaina, epaietako batek ere ez du aztertzen Hitzarmenak bananaren komertzializazioari ekarritako murrizketak duen eragina lehiaren defentsaren ikuspuntutik.

7. Lehiaren Defentsarako Estatuko Auzitegiak (aurrerantzean LDA) 1999/367 Ebazpenean, aukera izan zuen Bilboko Udalaren Hitzarmenak fruta-saltzaileentzat eragiten zuen arazoa aztertzeko. LDAk Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak (aurrerantzean LDZ) 1775/1998 espedientean adostutako artxibatze-akordioaren aurkako helegitea ebaztekoa zen.

Espediente hori PELTISA, SA fruta-enpresak MERCABILBAOren aurka jarritako salaketaren ondorioz hasi zen. PELTISAk MERCABILBAO salatu egin zuen bananaren komertzializazioa debekatu ziolako, aurretik bolada baterako baimena eman eta ondoren baimena luzatu egin zion arren.

⁷ Auzitegi Gorenaren epaiak, 1986ko abenduaren 11koa (Ar. 1986/651), eta 1986ko ekainaren 20koa (Ar. 1986/4743)



PELTISA, SAK zeukan obligazioa zela-eta eman zioten baimen hori, izan ere, PELTISA, SAK banana-salmenta utzi behar zuen, edo bestela, bere jarduera bananaren heltze-nabera eramane behar zuen derrigorrez.

PELTISA, SA enpresa 1996an ezarri zen fruta-saltzaileen nabean, eta era guztietako barazki- nahiz fruta-produktuak komertzializatzen hasi zen, tartean banana. Enpresak banana helduak erosten zituen MERCABILBAOren kanpoaldean eta bertako instalazioetan komertzializatzen zituen, fruten nabearen barruan.

MERCABILBAOk, egoera horren jakitun, 1979ko Hitzarmenaren berri eman zion PELTISA, SAri (Hitzarmenak debekatu egiten zuen bananaren heltze-nabetik kanpo banana komertzializatzea), eta 4 hilabeteko epea eman zion lekuz aldatzeko, eta, bitartean, banana fruta-saltzaileen nabean komertzializatzeko baimena eman zion⁸.

PELTISA, SAK MERCABILBAO salatu egin zuen Hitzarmen hark nagusitasun-posizioa gehiegikeriaz erabiltzea zekarrelakoan, bananaren komertzializazioa nabe bakarrera eta bertan kokatutako saltzaileetara mugatzen baitzuen.

Dena den, bai LDZk zein LDAk salaketa ebazteko gaitasun eza adierazi zuten, izan ere, legediaren arabera, ez zeukaten eskumenik lege bat aplikatzearen ondorioz izandako gertaeren aurka ebazteko (oraingo honetan, eskumendun organoak ezarritako hitzarmen baten ondorioz).

Hain zuzen ere, Lehiaren defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 2.1 artikulua dio:

⁸ Onartu egin zitzaion "Elorriko Hermanos Masa sozietatearengandik banana helduak jasotzea eta ondoren ematea publikoari saltzeko orduetatik kanpo, horrela bere eskaerak betetzeko" (LDZren 1775/98 espedientea)

⁹ <http://www.bananalink.org.uk>



2. artikulua. Legeak baimendutako jokaerak.

1. Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioari kalterik egin gabe, 1. artikuluko debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren hitzarmenei, erabakiei, gomendioei eta praktikei.

LDak adierazi zuenez, MERCABILBAO zerbitzu publikoa da eta Bilboko Udalaren nahien arabera moldatzen den eta nahi horien isla den enpresa misto batek kudeatzen du, beraz, enpresa, Udalaren araudiak betetzen dituen heinean, erantzukizunetik salbuetsita dago, eta ondorioz, ekintza guztiak erregulatzailaren zaintzapean geratzen dira, bera, Bilboko Udala alegia, baita zerbitzu publikoaren erregulazioaren arduradun bakarra eta berak konfiguratu dezake zerbitzu publikoa bere eskumen administratiboan barruan.

Adierazpenetan eta irizpenetan eskasa izan arren, oinarrizko puntua da prozesuaren bide osoa ulertzeko. LDZk, eskumenik gabekoa zela onartu arren, 1979ko Hitzarmena lehia askearentzako kaltegarria zela adierazi zuen, eta horren proba da enpresa bakar baten aldi bateko jarduerak eragin onuragarria izan zuela bananaren komertzializazioan.

LDZren 1775/98 espedienteak dioen moduan, MERCABILBAOn egindako ikerketa kontuan hartuz, Hitzarmenak ageriko eragina izan zuen bananaren komertzializazioan. Fruta-enpresa batek banana komertzializatzeko izandako baimenak, hau da, beste elementu bat baino ez bananaren komertzializazioan, denbora-tarte labur horretan (4 hilabete) eta hitzartutako baldintza murriztaileetan izanda ere, efektu onuragarria izan zuen lehiarentzat.



8. LDaren aldetik funtseko erabakirik egon ez bada ere Bilboko Udalaren Hitzarmenari dagokionez, egon da bai Madrilgo Udalak ezarritako antzeko Hitzarmen bati dagokionez, *Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 12/1993 Txostena* izenekoaren bidez, *Madrilgo fruten eta barazkien merkatu zentrolean banana komertzializatzeari buruzkoa (APLAMADRID)*.

Enpresari banana-saltzaileen eta beste fruta-saltzaileen arteko gatazka ugarien ondorioz sortu zen egoera. Enpresari horiek “MERCAMADRIDeko Banana Biltegizainen Elkartek (APLAMADRID)” ordezkatzen zituen eta bananaren komertzializazioaren monopolioa zeukaten Madrilgo Hornidura Merkatu Zentrolean (aurrerantzean MERCAMADRID). Beste fruta-saltzaileek argudiatzen zuten, Madrilgo Udalaren 1985eko apirilaren 26ko Hitzarmenak eraginda banana-saltzaileek zeukaten pribilegiozko egoerak prezioak aske finkatzea kaltetzen zuela eta fruten komertzializaziorako askatasuna justifikaziorik gabe murrizten zuela.

MERCAMADRIDen banana-saltzaileak kokatzea sustatu eta finantzatu nahi zuen Hitzarmen baten aplikazioaren ondorioz, enpresari horiek pribilegiozko egoera zeukaten. Benetan, hitzarmen ekonomikoa zen, eta hari esker, banana-saltzaileek MERCAMADRIDen kokatzeko eta bananaren nabearen eraikuntza finantzatzeko konpromisoa hartu zuten, eta trukean, banana komertzializatzeako eskusibotasuna emango zitzairen.

Gatazkaren aurrean, Madrilgo Udalak, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 26. artikulua betez, MERCAMADRIDen banana komertzializatzearen egoerari buruzko txostena idazteko eskatu zion LDari.



LDak, araudia eta bananaren merkatua aztertu ondoren, ondorioztatu egin zuen Madrilgo Udalaren 1985eko apirilaren 26ko aipatutako Hitzarmenak *“lehiaren murrizketa eragin duela Madrilgo fruten eta barazkien Merkatu Zentralean, (...) zeinek gaur egun ez daukan inolako justifikaziorik, eta beraz, aldatzea proposatzen da”*.

Hasieran, halako hitzarmena egoteko arrazoia egon zen, baina hamarkada bat geroago kalterako zen, eta *“merkatuan okerreko efektuak sortzen ari zen, hasierako asmoetatik oso urrun zeuden efektuak”*, izan ere, ez zion uzten merkatuari garatzen eta kaltegarria zen hasieran justifikatzen zuten baldintzak igaro eta gero.

LDari iruditu zitzaion Hitzarmenak oztopatu egiten zuela banana-saltzaileen nabetik kanpo arrazoi zilegirik gabe komertzializatzea eta MERCAMADRIDeko Biltegizainen Elkarteko (APLAMADRID) kideen esku uzten zuela banana komertzializatzeko eskusibotasuna eta pribilegioak ematen zizkiela justifikaziorik gabe, eta horrek era larrian murrizten zuen lehia, komertzializatzaile gehiago sartzea oztopatzen zuen eta, gainera, ez zuen ahalbidetzen instalazioak eta haiei lotutako jarduera ekonomikoa hedatzea.

Txostena amaitzeko, argi utzi zuen jasota *“ez dagoela lehiaren murrizketa justifikatuko duen interes publikoko inolako arrazoirik”* eta, era berean, xedatutakoa legez kanpokoa dela, MERCAMADRIDen beraren funtzionamendu-arauen aurkakoa baita.

Hori dela-eta, LDak Hitzarmena bertan behera uztea gomendatu zuen.

9. Bestalde, fruten eta bananen arteko tratamenduaren bereizketa ez dago berretsita materia jakin edo espezifiko baten bidez. Merkatuen



Funtzionamendu Araudian Fruten eta Barazkien Merkatuaren objektua definitzen da, eta ez da onartzen euren komertzializazioaren erregulazioan aldaketa eragin dezakeen inolako berezitasunik.

Hain zuzen ere, Araudi horren 34. artikulua ezartzen du:

34. artikulua. Fruten eta Barazkien Merkatu Zentralean salmenta-objektuak izan ahalko dira:

1. Fruta-mota guztiak, freskoak, lehorrak, izoztuak, hoztuak edo liofilizatuak izan.

2. Ortuari-, sustrai-, tuberkulu- edo barazki-mota guztiak, freskoak, hoztuak, liofilizatuak edo izoztuak izan.

Aipatutako arautik ez da ondorioztatzen bananaren komertzializazioari egoztea beharrezkoa den inolako berezitasun komertzialik.

- 10.** Azkenik, jasota utzi behar da hizpide dugun Hitzarmena kontraesanean dagoela Bilboko Udal Txit Gorenaren Udabatzak 1991ko uztailaren 19an onartutako MERCABILBAOren Zerbitzua Emateko Araudiaren 9. artikuluan ezarritakoarekin, Ondokoa dio artikulua horrek:

“Bilboko elikadura-unitatean sartutako handizkako merkatuak publikoak izango dira bertan gauzatzen diren jarduerak egiteko beharrezko baldintzak dauzkaten pertsona eta erakunde guztientzat, eta Araudi honetan, honen aplikazioan ezartzen diren Merkatuen Funtzionamendu Araudietan eta gai honi buruz indarrean dauden izaera orokorreko xedapenetan ezartzen diren mugak izango dira bakarrak.”



Ez Araudi honetan ezta Funtzionamendukoan ez zaio ezartzen inolako mugarik dagokien lizentzia daukaten fruta- eta barazki-handizkarien jarduerari.

III. OHARPEN EKONOMIKOAK

1. Bananaren merkatua enpresa transnazional handiek menperatzen dute, eta enpresa horiek integrazio bertikaleko maila handia daukate, ekoizpenetik hasi eta handizkako banaketaraino heltzen baitira. Egoera horrek oligopolio-izaera nabarmena ematen dio merkatuari, prezio uniformeekin eta garatzen edo sakonki aldatzen ez diren merkatu-kuotekin.

Bost enpresa multinazionalen artean⁹ munduko bananen %80 baino gehiagoren komertzializazioa kontrolatzen dute, eta gainera hornidura-kate osoaren integrazioa daukate (ekoizpena, inportazioa, banaketa, heltzea eta handizkako salmenta), bai enpresaren beraren egituraren bidez bai kapitalaren %100 izan ez arren estrategikoki kontrolatzen dituzten enpresen bidez.

Dole Food Co. eta Chiquita Brands International enpresek bananaren munduko merkatuaren %25 kontrolatzen dute bakoitzak; Fresh Del Monte hirugarren enpresa garrantzitsuena da merkatuaren %15 daukala, eta ondoren Exportadora Noboa dago %9rekin eta Fyffes %7rekin.

Lehen hirurak Erdialdeko Amerikan hornitzen dira eta nazioarteko merkatura oso lotuta daude; Fyffes, aldiz, Europako merkatura lotuago dago eta batez ere antzinako kolonia britainiarretan hornitzen da. Fyffes liderra da fruta-



mota guztien garraioan, komertzializazioan eta salmentan Europako kontinentean. Horretarako, banaketaren eta komertzializazioaren sektoreetako zenbait konpainia europarrekin elkartu da, Kanarietako bananen kooperatibarik handiena eta EUROBANAN Taldea barne, geografia iberiar osoan zehar hedatzeko.

2. 1993an Europar Batasunean (EB) Merkatu Antolakunde Bateratua (MAB) bananaren sektorean indarrean sartu izanak merkatu espainiarraren erreserbaren amaiera eragin zuen; erreserba hori mesedegarria zen 1972tik Kanarietako bananaren ekoizpenentzat. Orduetik, Afrikako, Karibeko eta Ozeano Bareko (AKB) ekoizleak Latinoamerikatik datozen inportazio merkeagoetatik babesteko zenbait tarifak eta kuotak erregulatu dute bananaren merkatua.

Gainera, duela gutxi, banana-ekoizleentzako aplikagarriak diren laguntzen erregimenean erreforma sakona gertatu da EBn. Bananaren MABan 2007ko urtarrilaren 1era arte indarrean egon zen erregimenak konpentsazio zuzena ematen zien ekoizleei merkatuetan prezioek behera eginez gero. Konpentsazio horren orde, aurrekontu-transferentzia bat dago Urrun eta Uharteetan egoteagatik Aukera Espezifikoen Programen bidez (POSEI). Horren zenbatekoa eskualde ultraperiferikoetako nekazaritza-ekoizpena bultzatzera bideratzen da, eta Estatu kide ekoizleei malgutasuna ematen die dirua banatzeko modurik onena aurkitzeko.

3. Banana EBn gehien inportatzen den fruta lehorretako bat da, eta banana-eskaria gero eta handiagoa da. 2004ko zabalkundearen ondoren, EB munduko lider-merkatua bihurtu zen bananei dagokienez, eta bertan, urteko banana-kontsumoa 4,6 milioikoa da gutxi gorabehera.



Kontsumitutako bananen %67 Latinoamerikatik inportatzen da (Ekuador, Costa Rica, Kolonbia eta Panamatik batez ere), eta %17 AKB herrialdeetatik dator¹⁰. Europar Batasunean ekoizten diren bananak EBk daukan hornidura guztiaren %16 baino ez dira. Ekoizpenaren zatirik handiena eskualde ultraperiferikoei dagokie (Kanariak, Guadalupe, Martinika, Azoreak eta Madeira), eta kopuru txiki bat (%2 baino gutxiago) Zipren, Grezian eta Portugalgo lurralde kontinentalean ekoizten da.

EBko merkatuan Kanarietako bananak inportatutako bananaren aurrean dauzkan desabantaila nagusiak honakoak dira: batetik, bolumen jakin batzuen hornidura etengabea ziurtatzeko beharrezko dagoela eta Kanarietako gaur egungo ekoizpenak ezin dezakeela bolumen hori ase, eta bestetik, prezioaren faktorea, Kanarietako bananaren kostuak inportatutakoenak baino handiagoak baitira¹¹.

Europako banana-enpresari nagusiei dagokienez, merkatua gero eta gehiago ari da batzen lehenago aipatutako enpresetako lauren inguruan (Chiquita Brands, Dole Food Co., Del Monte Fresh Produce eta Fyffes).

4. MERCABILBAOk EAEn saltzen den bananaren zati handi bat komertzializatzen du: 17 tona inguru urtero. Horren jatorria Kanariak dira %90ean eta inportazioa %10ean (Martinika).

MERCABILBAOk emandako informazioaren arabera, gaur egun 4 enpresak komertzializatzen dituzte bananak horretarako prestatutako nabean:

¹⁰ http://ec.europa.eu/agirculture/index_es.htm (MEMO/06/335)

¹¹ EBko Banana Merkatuaren Azterketa (Nekazaritza eta Elikadura Ministerioa)



Platanos Txiki, SLk (postu 2), Carmelo Torresek (3 postu), Platanos Titok (postu 2) eta Francisco Jose Verguizasek (postu 1).

Frutas Iru, SA enpresa Platanos Txiki, SLren %100aren jabea da eta ARC Eurobanan (Eurobanan Taldea) enpresarekin lotuta dago, eta baita Fyffes multinazionalarekin ere¹².

Guztira 8 postuk saltzen dituzte bananak, eta gainera, nabea guztiz beteta dago. Uneotan ez dago postu bat ere ez libre, izan ere, hasieran 20 ziren arren, beste postuak fruta-biltegi moduan erabiltzen dira bertan inolako transakziorik ez egiteko konpromisoarekin.

5. Laburbilduz, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira bananaren merkatuan azken hamarkadetan, hala nola, EBn bananaren arloan MAB sortu izana, Kanarietako bananaren monopolioa hautsi izana eta heltze-, garraio- eta logistika-tekniketan aurrerapen teknologikoak egon izana.

Alabaina, aldaketa horiek ez dute islarik izan MERCABILBAOren jardueran, eta bananen komertzializazioak murrizketa dauka bere gain, izan ere, bananen komertzializaziorako prestatutako nabean ez dago postu librerik eta gainera ezin da bananarik komertzializatu frutentzako eta barazkientzako MERCABILBAOko beste nabeetan.

IV. ONDORIOAK.

¹² <http://www.frutasiru.com> (<http://www.coplaca.org>)



1. Helburu sozial antzeko enpresen aurrean, Bilboko Udalak, hizpide dugun Hitzarmenaren bitartez, enpresa batzuei bananak komertzializatzeko eta beste batzuei beste fruta guztiak komertzializatzeko eskubidea ematea eragin zuen, eta erabateko eskusibotasuna ezarri zien instalazioetako bakoitzean. Heltze-prozesuan espezifikotasun jakina duen fruta izanda, bananari erregimen berezia ezarri zitzaion, ez bakarrik biltegitratzeari eta heltzeari dagokienez, baita ere komertzializazioari dagokionez.

Instalazioek bananak heltzeko duten espezifikotasunak banana komertzializatzeko eskusibotasuna justifikatzen duelako ideian oinarritu da erregulazioa. Lehiaren legediaren ikuspuntutik, heltzeak baldintzatutako komertzializazioa defendaezina da eta justifikaziorik gabeko murrizketak eragiten ditu fruta-saltzaileak eta banana-saltzaileak bananen komertzializazio komunean aske parte hartzeko.

Hasieran defendaezina bazen bananaren merkatuaren babesa heltze-metodologia batean eta fruta hori komertzializatzeko modu batean oinarritzea, gaur egun, izandako aldaketa teknologiko eta logistikoen ondoren, are justifika ezinagoa da.

Beraz, alde batetik frutak eta bestetik bananak era estankotan komertzializatzea diskriminatzailea da, izan ere, produktu baten komertzializazioari murrizketak ezartzen dizkio arrazoi jakin eta nahikorik argudiatu gabe eta hartu beharreko neurriaren eta bere ondorioen arteko proportzionaltasunari kalte egiten dio, betoa eta murrizketa ezarri baitzaizkio bananaren komertzializazioari MERCABILBAO barruan bananaren heltzea eta bere kudeaketa egokia bermatzeko.



2. Baldintza jakin batzuk betez gero, HMZen instalazioetatik kanpo instalatzeko askatasuna dago, eta aukerako kanal hori erabiltzen dute azalera handi eta nazioarteko sare gehienek. Kanala ez dago HMZen araudiaren menpe, beraz, frutak eta bananak inolako murrizketa eta sektorializaziorik gabe komertzializa daitezke. Hau da, komertzializazio- eta banaketa-zentralek produktua handizkariengandik jasotzen dute eta inolako murrizketarik gabe banatzen dute, produktuaren kalitatea eta merkatuaren baldintzak inolako modutan kaltetu gabe.

3. Ez dago proportzionaltasunik bananaren komertzializazioa nabetik kanpo debekatzeko neurriaren eta bananaren heltzea nabe bakarrean zentralizatzeko helburuaren artean. Benetako baldintzatzaile bakarrak instalazio-kostuak dira, beste fruta-saltzaileak ez baitaude derrigortuta heltze-nabeen kostu horiek jasatera. Ildo beretik, gaur egun murrizketak ez ditu betetzen leku-aldaketaren helburuak, —banana-saltzaileak instalazio bakarrean elkartzea bertan bananaren heltzea egokitzeko—, gaur egun ez baitago leku-aldaketarik egiteko aukerarik.

4. Gaur egun lau enpresa banana-saltzaile baino ez daude, eta hasieran erabiltzeko zeuden 20 postuetatik 8 betetzen dituzte. Banana-saltzaileek betetzen ez dituzten beste instalazioak fruta-saltzaileen biltegiak betetzen dituzte. Banana-saltzaileentzako soilik sortutako instalazio batzuetan, frutak kontserbatzeko hozkailu-biltegiak onartzen dira, eta baita frutak pilatzea eta tratatzea, baina ez saltzea; hau da, debeku hirukoitza daukate: ezin dute bananarik pilatu, ezin dute bananarik saldu eta ezta ere frutarik saldu instalazio horietan.



5. Horren osagarri, MERCABILBAOn bananaren merkatua liberalizatu izanak edukitako eragin positiboari buruzko aipamen argia dago LDZk PELTISA kasuaren ikerketan bideratutako espedientean. Hori dela-eta, esan genezake banana-saltzaile gehiago sartzeak ez lukeela eragingo merkatu-eredua haustea; aitzitik, merkatua sendotu egingo luke, izan ere, lehia handiagoa izatean, prezioen maila lehiakorra eta azken kontsumitzaileentzako zerbitzu handiagoa eskainiko lituzke.
6. Laburbilduz, heltze-nabe bereziaren barruan bananaren handizkako komertzializaziorako egokitutako lokaletan komertzializazio horri jarritako mugaren bidez, hizpide dugun Hitzarmenak lehiaren murrizketa ekarri du, eta murrizketa horrek ondoko efektuak eragin ditu:
- Bananaren komertzializazioan interesa duten enpresari berriak bertan sartzeko oztopo handia.
 - Zabalkunde komertzialerako galga, bai oso-osorik bananaren salmentan diharduten enpresariei dagokienez zein frutak eta barazkiak saltzeko lizentzia duten beste merkatarietarako dagokienez.
 - Txikizkarien interesetarako kalte argia, eskaintza-aukerak murriztean.
 - Zeharkako kaltea kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat.

Beraz, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzu honen ustez, Hitzarmen horrek lehia askea distorsionatzen du.



V. GOMENDIOA.

Txosten hau Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren funtzioak ezartzeari buruzko apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren 13. artikulua betez argitaratu da —artikulu hori Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 31. artikulua k) atalari buruzkoa da—. Eta txosten honen bidez Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak **adierazten du Bilboko Udal Txit Gorenak 1979ko urriaren 31n ezarritako Hitzarmenak lehia murriztu egiten duela Fruten eta Barazkien Bilboko Merkatu Zentralean (MERCABILBAO), bananaren handizkako komertzializazioari dagokionez.**

Inolaz ere ez da aurretik epaitzen Hitzarmenaren legezkotasuna eta ez dira epaitzen edo berrikusten udal hitzarmenak, jarduera administratiboak diren heinean Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzu honen jardun-eremutik kanpo baitaude.

Hori dela-eta, eta bere eskuduntzak erabiliz, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ondokoa GOMENDATZEN DIO Bilboko Udal Txit Gorenari:

Indargabetu dezala Bilboko Udaleko Batzorde Iraunkorrak 1979ko urriaren 31n ezarritako Hitzarmenean ageri den ondoko tartekia: *“hala nola bananen komertzializazioa ezin izango dela egin horretarako sortutako pabilioitik kanpo MERCABILBAOren barruan”.*



**OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA**

*Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza
Lehiaren Defentsarako Zerbitzua*

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

*Dirección de Economía y Planificación
Servicio de Defensa de la Competencia*

Gasteiz, bi mila eta zazpiko maitzaren hogeita zortzia.

Sinatua: Iñaki Beristain Etxabe. LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL
ZERBITZUKO NAGUSIA. EKONOMIA ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA